
HIPER, PLANO BATEAN KONDO ZIRKULARRAK EBAKIZ.

 JOAQUIM DOLS RUSINOL

1.

Ber-definitzea da, egia esan, definitzeko modu posible bakarra.

Aurkakoa, definizioen historia egitea da

zientzian
eguneroko bizitzan
artean

hori, tamalez, ohikoena bada ere.

Definitzea **ez** da nola definitu zuten esatea,
nola ulertu zuten lehenago
beste batzuk.

Definitzea **bai** da nola ulertzen dugun esatea,
nola azaltzen dugun guk
hemen
orain.

Izan ere, beti,
beti,
definitzea esplikatzea da
auto-esplikatzea hemen
eta
orain.

Zerbait,
edozer gauza delarik ere,

gure
irizpideen
premisen
kontzeptuen

arabera bir-definituz definitu ordez,
lehendik emandako definizio bat errepikatzeraz mugatzen garenean,
ez dugu hori,
edozer gauza delarik ere,
definitzen,

beste batzuen
kontzeptuak,
premisak
irizpideak

azaltzen ari baikara.

2.

Definitzea da gure burua definitzea
gure burua auto-definitzea.

Horregatik, definizio oro da

planteamendu
premisia
ideia

batzuen
batzuetatik egiten den

birdefinizio bat
auto-birdefinizio bat.

Garrantzitsuenak inoiz ez dira definizioak
horiek erantzun hutsak besterik ez direnean.

Garrantzitsuenak beti dira galderak
horiek aipatu erantzunakeragiten
aurre-definitzen dituztenean.

Benetan garrantzitsuak direnak galderak dira.
Horiei eman behar zaizkie definizio-moduko erantzunak.

Galderak erretratu gisa,
auto-erretratu gisa, hipotesi
zalantza
behar modura.

Erantzunak azalpen gisa,
azalpen proposamen gisa,
hitzezko definizio
ber-definizio
moduko auto-azalpen proposamen gisa.

Hitzaren arazoa.
Hitzaren kultur gisa definizioak
ber-definizioak duen arazoa.

Hitzaren kultura.
Hiper-aren kultura.

3.

Hiper,
gure burua definitzeko
auto-definitzeko modu gisa?

Gure gizartea hiper-aren gizartea da:
hipertestua
hiperaktibitatea
hiperpolitika
hiperpentsamendua.

Hiper dena,
guztia ber-definizioaren sintoma gisa?

arte
zientzia
kultura
gizartea
bizitza

edo,
ezeren ez-ber-definizioaren aurrizki gisa?

bizitza
gizartea
kultura
zientzia
arte

Zer esan nahi dugu hiper diogunean, eta zeri egiten diogu erreferentzia?
Hiper ukitzen duen oro on egiten duen nagusitasun-bektore gisa?
Arte arte (soilik) izango litzake, eta hiper-arte (jada) arte baino gehiago izango al litzake?

Hiper, gauzak dauden bezala (hierarkiko definituta) uzteko baina (ordenamenduz eta definizioz) aldatzearen itxura emateko metodo gisa

edo

hiper, gauzak eta ezagutzak aldatzeko azken xedeaz egungo hierarkia birplanteatzeko modu gisa.

Hiper teknokulturaren garaian.

4.

Hiper pentsamendu berri gisa; pentsamendu horretan, askotan, oinarritzkoa dena hipo delakoa da, hots, ohikoa, alternatiboa, marjinala, inolako izenik jasotzen ez badu ere.

Hiper hiper- delakoaren handitasun hanpatutik urrun, eta pobrea, bizia, galkorra denaren errealitate gordinetik gertu.

Hiper, elkarrekintzaren, mestizajearen eta konplexutasunaren pentsamendu (berri) gisa, lineala, sinplista eta apelaezina denaren pentsamendu (zaharrari) kontrajarrita.

Anitza denaren, espazioen eta denboren, indibidualitateen eta kolektibitateen, grinaren eta ekintzen hiper-a. Aukeren hiper-a. Ideologiaren hiper-a. Estetikaren hiper-a.

Hiper, klase pasiboak ekintzara iragaten ari direneko gizarte baten (ber)definizio gisa. Gizarte horretan, ikasleak irakasleak bezain beste informazio edo gehiago du eskura. Gizarte horretan, hartzailea aldi berean igorle bilakatu daiteke. Gizarte hori ez dago jadanik irmoak bezain baztertzailerak diren binomioetara murriztean oinarrituta, funtzionamendu desberdina nahiz kontrajarria duten hainbat egituren elkarbizitzan baizik.

Hiper dena lan-metodo gisa. Esplosiboa.

Hiper dena bizimodu gisa. Inklusiboa.

Hiper dena guk geuk hautatutako gizarte-ereduaren (auto)ezarpeneranzko bide gisa, eta, barruan, egoki irizten dugun arteranzko bide gisa.

Hiper **ez**